

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko abuztuaren 7a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Indurainen aldeko bizikleta proba etzi korrituko da.

Ramon Bikuña • «Ur-bilatzailearen lana gehienek egin dezakete».

Antzinako aztarnategiak azaleratuz



• MIKEL SAIZ

Eguraldi lehorra eta oporraldia aprobetxatuz, uda arkeologia indusketak egiteko garai egokiena bilakatu da. Nafarroako Museoak lau aurreikusi ditu irail bukaera arte; garrantzitsuena egunotan Nafarroako Unibertsitatearekin elkarlanean Urantzian azaleratzen ari den aztarnategi neolitikoa da.



Bera • Indurainen pedal kolpeekin bat

Iruña


San Lorenzoko jaia ospakizun astelehenean

ETZIDAMU, ASTELEHENA, OSPATUKO dute urteroko jaia Iruñeko Alde Zaharreko San Lorenzoko auzokideek. Aurteko urteetako bideari jarraituz, ez dute deus berezirik prestatu. «Sanferminak ez bezala, auzoko jaia lagunartekoa eta bertakoentzako festa izatea nahi dugu, jende olderik gabe. Horregatik ez dugu ekitaldi gehiegirik prestatu» dio Fernando Lakuntza auzokideak. Jaia San Lorenzoko elizaren atarian eguerdiko 12:00etan botako duten txupinazoarekin hasiko dute. Iruña taldeko dantzariak auzoko gaitari eta txistularien doinuaren arrimoan dantzatzeko dute ondoren, eta arratsaldeko 7:00etan auzokideentzako janaurreko bikaina izanen da San Lorenzo karrikan. Afarira biltzeko hitzordua hiru ordu beranduago jarri dute. Nahi duen guztiak, otordua, aulkiak eta mahaia eraman beharko ditu. «Festa kalean bizi garenontzako egiten dugu. Etxekoek egin nahi genuke parranda eta kalean horretarako giro aproposo sortu», gaineratu du Lakuntzak. Afalostean dantzarako aukera ere izanen dute auzokideek, Jarauta 69 txarangarekin. Txantxarako unerik ere izanen dute, eta auzokideek San Lorenzoko apaizari jota bat kantatzera hubilduko dira. Goizeko 4:00etan Apaizari jota abestia eskainiko diote. «Autoritatea gogaitzea dugu helburu, beti pribilegioak gozaten dituztenak izan ez daitezten, bederen», azaldu du irrifartsu Lakuntzak.

→ Uxue Zabaleta

Atarrabiako txirrindulariaren izena daraman martxa korrituko da etzi

Miguel Indurain txirrindulari ohi handiaren ohoretan egiten den nazioarteko zikloturismo martxa etzi izanen da Beran. Urtero bezala, bi ibilbide izanen dituzte aukeran txirrindulariek, eta afari batekin bukatuko da eguna.



Miguel Indurain Beran izanen da etzi.
• ANDER GILLENEA

ZAZPIGARREN URTEZ OSPATUKO DA Club Ciclista Beratarren antolatutako martxa. Ausartenean 8:30etan hartuko dituzte bizikletak eta 174 kilometroko ibilbidea egiten dute. Beratik abiatu, Donezteben barrera, Malerreka-tik igo Urrotz aldera, hortik Lizasora, Ostizen Belate aldera hartu, eta Berroetan barrera Iruritara agertuko dira, Otsondotik Dantxarira aterazeko, eta hemendik Sarara. Saran Lizaietako gaina gaintu ondok Etxalarrera agertuko dira txirrindulariak, eta hortik Beran egonen den helmugara joanen dira. Bortz mendate igaro beharko dituzte ibilbide hau hautatzen dutenek, Orokieta, Belate, Ziga, Otsondo eta Lizaieta. Bigarren ibilbidea ordu erdi beranduago abiatuko da, eta guztira 106 kilometroko luzera izanen du. Beratik Mugairera sartuko dira txirrindulariak, eta

Irurita, Elizondo, Otsondo, Dantxaria, Sara, Lizaieta eta Etxalar gaintu ondok, Berara iritsiko dira. Hauek, hiru mendate izanen

dituzte, Zigakoa, Otsondokoa eta Lizaietakoa. Aitzineko urteetan partaidetza handia lortu izan du proba

honek, eta aurten ere aitzineko urteetako jende kopuruari eutsi nahi diote. Izen ematea bihar egin ahal izanen da Labiaga Ikastolan, goizeko 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldeko 15:00etatik 20:00etara. Igandean bertan, berriz, goizeko 6:00etatik proba hasi baino ordu erdi lehenago bitarte, egin ahal izanen da. Partaideek arratsaldeko 5:00etarako bukatu beharko dute ibilbidea, eta bukaeran sari banaketa eta partaide guztiei opariak banatuko zaizkie. Izena ematerakoan federatuek 2.000 pezeta ordaindu beharko dituzte, eta federatu gabeek 2.500.

Irteera puntuan ia urtero egon izan da Miguel Indurain, eta aurten ere hala izanen da. Iaz bezala, txirrindularitza profesionala utzi ondok, ibilbide guztia egiteari ekingo dio. Bukaeran sari banaketan egonen da, eta bere izena daraman *challenge*ko hiru probak jokatu ondok, irabazleei sariak emango zaizkie. Miguel Indurain *challenge* hiru probaz dago osatua: Landetan korritzen den Dominique Arnaud (ekainaren 14ean korritutakoa), Goi Pirinioetako hiru mendatena, eta Berako Indurain proba. Hiruretan sailkapen hoberean lortzen dituztenek jasotzen dituzte sariak.

Egunari akabera emateko, urtero bezala, afaria prestatu dute antolatzaileek, arratsaldeko 8:30etatik aitzinera. Bertan Frantziako bortz Frantziako Tour irabazi dituen txirrindulariari omenaldia eskainiko dio antolatzaileek eta herritar guztiei dago zabalik afaria.

→ Jon Abril

metropoli forala

FELIPE RIUS



Alfredo Bryce Echenique idazleak azken urteetako liburu farregarrietako batean alkoholik edaten ez dutenez ez genukeela fidatu behar idatzi zuen, eta berriki Peruko telebistan bera guztiz fidatzekoa dela erakutsi omen du saio batean erabat horditurik aurkeztuz. Bukowski eta *beat-generation*eko idazleak modaz pasatzera omen doazen momentu hauetan ez dago gaizki horrelako aldarrikapenak zabaltzea, besterik ez bada Inperiotik etengabe iristen zaizkigun inposaketa osasuntsuei aurre egiteko. Oso gizon depresiboa omen da Bryce Echenique, eta beharbada depresiorako joera hori da edatera bultzatzen duena. Dena dela, Bryce, edo nahi bada bere pertsonaiak, Martin Romaña izenekoak hain zuzen, arrazoia dutela frogatzeko aski da parrandetan mostoa baino eskatzen ez dutenen aurpegietara begiratzea, eta argi gera dadila hemen ez dela alkoholaren inolako apologia egiten ari.

Teoriak eta tragoak

Bestalde, bakarrik mostoa edaten dutenei zalago izanen zaie beste nobela bateko pertsonaiari, Felipe Benítez Reyesen *El novio del mundo* liburuko Walter Ariasi, pasatzen zaiona gertatzea, hau da, Amsterdameko hotel batean oheratu eta biharamunean Melillako kale baten erdian esnatzea. Walter Ariasek ere badiu fidagarritasunari buruzko printzipio batzuk: bere ustez, ez genuke inolaz ere fidatu behar teoriarik ez duen jendeaz, eta berdina teoriak sexuari buruzkoak edo beste edozein gairi buruzkoak izatea, teoriarik gabeko jendeak bapatean egiten omen baititu gauza guztiak, pentsatu gabe. Teoriak, bestalde, besteen teorien aurrean dugun defentsa baka-rra dira, Ariasen ustez.

Pentsa liteke, edozein modutan, Bryce eta Benítez Reyes-en pertsonaiak ez direla inoiz ados jarriko, askok sekula teoria on bat aurkitu ez dutelako edaten baitute zenbat mozkiortz ez ote ditugun topatu goizeko ordu tri-

kietan tajuzko teoria bat osatzeko ahaleginetan, eta teoriak dituztenek alkoholak neuronak eta haiekin batera teoriak ere suntsituko dizkien beldurrez mostoa baino edaten ez dituztelako. Izugarritzko dilema planteatzen zaigu, beraz: zer egin behar dugu bizitza honetan besteak gutaz fida daitezten, edan ala teoria bat izan? Batzuek teoriak izan dituzte inoiz, eta mozkorraldi baten ondoren teoria horiek ez dutela deustarako balio oharatu dira; beste batzuek, berriz, izenik gabeko Alkoholikoen bileretan ikasi dute zeinen garrantzitsua den teoria bati izatea. Azkenean inork ez daki zeinetaz fidatu behar duen. Niri Walter Ariasek bezalako teoriak izatea gustatuko litzaidake, baina, teoriak aspaldian agortu zitzaizkidanez eta besteek niregan konfiantza izatea nahi dudanez, trago batzuk hartuko ditut ea suerte piska batez gauean metropoli foral honetan oheratu eta bihar goizean Bostgarren Etorbidean esnatzen naizen festondorik gabe.

Betelu • Hiri plangintzak dimisioak eragn ditu

Herritarrengandik jasotako mehatxuek bultzatuta hartu omen dute erabakia

Ustez herritarrengandik jasotako mehatxuek bultzatuta, sei zinegotziren dimisioa eragin du hiri plangintzak.

MIGUEL TELETXEA ORAIN ARTE alkateordea izandakoaren hitzetan, «hiri plangintza ezagutu zenetik jasotako presioak eta mehatxuak» bultzatu dituzte dimititzera. Haren ustez, plangintza ez da gelditu behar eta horrelako kasuetarako jarraitu behar dira. Izan ere, hiri plangintzaren aurka sortu den batzordeak nahi duena da lehenengo plangintza geldiarazi, eta bertan ikusten dituzten akatsak konpondu. Asmo horrekin sortu zen batzordea, behintzat. Mikel Rekalde kidearen esanetan, «plangintza ezagutzera eman zenean, jendea berehala berotu egin zen. Horregatik, hoberena, plangintza ongi aztertu eta jendea lasaitzea zen, informazioa emanez. Hasieratik gure nahia informazioa lortu eta ematea izan da, ez zinegotzi eta alkatearen antzera, lehenengo momentutik informazioa ezkutatu eta ukatzen ari baitira», dio.

Zinegotziek aipatutako presioak eta mehatxuak ez omen dira batzordetik heldu, norbanakoenak izan omen dira, gaiaren larritasunaz kezkatutik eta haserre,



Hiri plangintzak tira-bira asko sortu arren, alkateak ez duela dimitituko dio. • LUIS AZANZA

kontrolatu ez direnak. «Horregatik sortu genuen batzordea, jendea lasaitu zedin. Horretarako, Udalak ordu arte ukatutako informazioa eskaini nahi genion jendeari. Duela gutxi, teknikoekin bilera bat egiteko asmoa genuen. Bertan, teknikoak ez zen agertu, ezin omen zuelako. Eta horrelakoak asko izan dira».

Proiektua aztertu bezain laster, sinadura biltzeko kanpaina hasi zuen batzordeak. Dimisioen berri izan zuten unean, berrehundik gorakoak omen ziren eskuratuta-

ko sinadurak, herriko biztanleen erdiak baino gehiago. «Proposamena, plangintza zaharra geldiaraztea eta herritarrek antzemandako akatsak konpontzea zen, eta ez zenbait komunikabideetan esan den bezala, plangintza berri bat egitea», azaldu du batzordekideak.

Proposamen honek, sinadura guzti horiek bildu izanik, prozesua geldiarazi zezakeen. «Baina orain, ez dago zinegotzirik proposamen hori onartzeko edo baztertzeko, beraz, gure proposamena

ezin da aurrera atera. Hori da, dimisio hauen benetako arrazoia, gure proposamena itotzea, alegia», azpimarratu du Rekaldek. «Hasiera batean zinegotzi horiek ongi ikusi zuten batzordearen sorrera, beraiek ere informazio gehiegirik ez zutela onartu ziguten, eta orain, guk presioa egin omen diegu. Hori ez da ulertzen. Gainera, plangintzarena, gai garrantzitsua da herriaren etorkizuna jokoan baita», gehitu du.

Bestalde, Jesus Gonzalez Beteluko alkatea bakarrik geratu da Udaletxean. «Ezer txarrik egin ez dugunez, nik behintzat ez dut dimititzeko asmorik. Uleritzen dut, bestalde, zinegotzien jarrera, presioa handiegia izan baita», esan du. Batzordearen sorrerari buruz galdetzerakoan, ez du uste alkateak hori denik bidea. «Jarraitu beharreko bidea alegazioena da. Alegazioak aurkezteko epea hilaren 16an amaitzen da. Komisio horretako kideek lortu nahi duten benetako helburua, herritarrek Udaletxearen kontra jartzea da. Lehendik dimititu duen zinegotzi baten bekaizkeria dago atzetik. Bestalde, lortutako sinadura horiek errespetatzen ditut, baina ez horiek lortzeko jarraitu den bidea. Atez ate ibili dira gezurra ahoan dutela, eta horrela jendea derrigortu egiten da».

Oraingo legegintzaldia ekainean amaitzen da, eta ordurarte alkateak bakarrik jarraitu ezingo duenez, badirudi Nafarroako Gobernuak osatu beharko duela orain behin behineko Udaletxea.

→ Urko Aristi

herri aldizkariak

Asier Azpilikueta

Lina Gorostiaga andereñoa, 'Axular'-en

Axular-ek, Burlatako herri aldizkariak, bostgarren zenbakia karrigaratu berri du, udari dagokiona hain zuzen ere. Burlatako gaztetxea eta Haritz Berri etxalde eskolari buruzko erreportaiak, eta herri honen biziaren berri ematen duten argazki pila aurki daitezke, besteak beste, **Axular** aldizkarian. Irakurgai dago ere, bertako Paz de Ziganda ikastola orain 27 urte martxan jarri zuen Lina Gorostiaga andereñoari egiten dioten elkarrizketa. Honela kontatzen du Linak ikastolaren hasiera haiek: «Burlatan egun batez esan zidaten ikastola bat ireki behar zutela eta titulu-

dun irakaslea behar zutela. Ez nekien nork ireki nahi zuen, ezta nola ere, baina nik hamabi ume aurkitzen banituen ikastolan egonen nintzela esan zidaten. Hasieran etxe-etxe hasi nintzen, lehenik nire kalean barna ibiliz, gero 3 urtetako haurren etxetara joanez, eta horrela hogeitabi ume lortu nituen».

Erratz bat, fregona bat eta etxetik ekarritako ipuin batzuekin bakarrik hasi omen zen Lina, gurasoen laguntzaz. «Lehendabiziko guraso haiek oso ilusionaturik zeuden. Egunerok umeak ikastolara eramaten zituzten eta beraiekin hitz egiten nuen, eta be-

raiek zerbait behar nuela ikusten bazuten, hantxe ekartzen zuten hurrengo egunean: ipuinak, marrazkiak, jostailuak, edozein gauza». Aspaldiko egoeraren eta oraingoaren arteko ezberdintasunik ikusten du Linak eta halaxe erraten die Burlatako **Axular** aldizkariari: «Oraingoari... bada, masifikazioa kenduko niok. Hasieran ni oso pozik sentitzen nintzen: umeak, gurasoak eta ni neu, besterik ez. Lehen harreman gehiago zegoen, pertsonalagoa zen. Gurasoen partaidetza handiagoa zen. Orain, haiekin hitzegiteko, ordua eman behar».



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Oso tristea

Gaur bezalako egunetan eta ohetik altxatzen ari naizen momentuan, nahiago nuke nire ordenagailuak aukeran duen moduan Mayusculas tekla sakatu eta extensio desaktibatuekin jeikitzea. Tristeziaren extentsioak kezkatzen nau batez ere, horrelako egunetan nire Sistemaren gainontzeko extensioekin talka egiten baitu. Goiz lainotsu eta arrunta baino neguko goiz itxia eta tristea iruditzen zait leihotik begiratuz gero. Besterik gabe bakarrik nago etxean baina guztiz abandotaturik egongo banintz bezela sentitzen naiz. Horrelakoetan dentistara joan behar naizela (behingoz) eta gisa horretako ideiak etortzen zaizkit burura, edo hautatu dudana ez zaidala batere gustatzen, edo nahi nituzkeen gauzak ez ditudala sekula santan lortuko. Tristeziaren extentsioak gauza bat du ona: olerki tristeak gustarago irakurtzen ditudala. Edo musika tristea entzun. Bazkari tristeak ez, bazkari tristeak baino gauza tristeagorik ez dago. Behoko atetik jo dute eta, ez dakit ze itxaropen faltsuekin, joan naiz erantzutera. Ez dira ezagunak sikiera. Katu bat teilatuetan galdu dutela eta ea ikusi ote dudana. Ez, ez dut ikusi. Ikatz du izena, beraz beltza izango da. Dena den, teilatuan obretan ari dira eta katua ez dela ezta hurbilduko ere esan diet ahotsa tristearekin. Bale. Mila esker. Orain, teilatuei begira, katu bat faltan dutela, eta langileak sobran, iruditzen zait. Gauza tristea da hau ere. Extentsioaren kontuak dira.

Telefonoa mutu dago. Egun tristeetan ez du txirrina jotzeko ohiturarik. Leihotik begiratu dut eta lehenago ez zegoen kable bat ikusten dut zintzilik. Teilatuan obretan ari diren langileek motozerrarekin moztu dute. Jesus. Nire telefonoa altxatu eta linearik gabe nagoela oharitzen naiz. Ezin deiarik jaso, beraz. Maitiaren deia teilatuan dagoen kable eten horren puntara nola ailegatzeko den imaginatzen ari naiz orain. Ailegatu eta teilatua zirikuetatik galtzen da ur ixuria bezala. Bada, kit ez dela batere zientifikoa eta telefonikako edozein teknikarik zuzenduko lukeela hau, baina zer egingo diogu: egun tristea izan dut gaur.

Antzinako aztarnak azaleratuz

Abuztuaren amaiera arte Urantziako aztarnategi neolitikoa aztertzen dihardu NUko talde batek

Uda arkeologia indusketak egiteko garai aproposa izaten da. Ez da kasualitatea, eguraldia lehorrak eta oporrak lagundurik ikertzaileentzat errazagoa baita ordu asko eta lasaitasun handia behar dituzten indusketak egitea. Nafarroako Museoak lau aurreikusi ditu irail bukaera arte. Horien artean garrantzitsuena Urantzian azaleratzen ari diren aztarnategi neolitikoa da.

MENDE HASIERAN ON JOXEMIEL BARANDIA-RAN Urbasako mendietan lehen indusketak egiten hasi zenetik asko aztertu da Nafarroan. Bera izan zen aintzindaria eta haren bidea hainbat arkeologok eta erakundeek jarraitu dute Euskal Herrian. Egun Nafarroako Museoak da herrialdeko indusketez arduratzen den erakundea. Aurten lau indusketa dituzte eskuartean, baina garrantzitsuena, ez bairrik gabe, ekainaren bukaeratik Urantzian industen ari diren aztarnategi Neolitikoa da. Herria iragan eta Sesmarako bidea hartu eta eskuinetara kokatzen da, Los Cascajos izeneko tokian. Aztarnategia 1995an aurkitu zuen lurra mugitzen ari zen makinak. Gizaki aztarnak izatean Gerra Zibilean akatutakoen hezurrak izan zitezkeela pentsatu zuten baina hipotesi hori berehala baztertu zen. Bertako iturrietik dioteenez, Urantzian Gerra Zibilean hil zituzten herritarrek baina ez zituzten herriko lurretan lurperatu. Javier Armendariz arkeologoak hasi zuen indusketa baina egun Nafarroako Museoak eta Opuaseko Unibertsitatea elkarlanean ari dira indusketa egiten. 1996an hartu zuten lana Jesus Sesma museoko arkeologoak eta Jesus Garcia NUko arkeologia irakasleak. Orduan 28 zulo egin zituzten eta chorketa bat indusi zuten. Aurten berriro hasi ziren uztailearen hasieran eta hilaren bukaera akitzea espero dute. Aztarnategia legar-hobi batean kokatua dago. Erdialdean eta Erriberan egiten ari diren lursail-kontzentrazioa dela-eta palaren makina lurra mugitzen ari da etengabe Los Cascajos. Hori dela eta, 5.000 urte inguru



Jesus Garcia

«Ez genuen uste hain herrixka handiak zeudenik. Aztarnak oso leku zabalean aurkitu dira. Nafarroan, Ebroko bailaran eta penintsulan garai honetako hain herri handirik ez da ezagutzen»

dituen aztarnategiko indusketa azkar egiten ari dira. «Palaran aurretik goaz korrika. Horrelako herrixka bat undistea lan handia eta geldoa da, labana eta pala txikiekin egiten dugu lan eta halek oso azkar doaz. Dena dela, gaizki ala ongi egin, indusketa egiten joan gara eta zegoena nahiko ongi berreskuratut dugu», azaldu du Jesus Garcia indusketako koordinatzaileetako batek. Berreskuratut dutena Neolitikoaren bukaeran abiatu eta Kalkolitikokoan era iraun zuen herria da eta etxoletan bizi zen gizakia omen da.

Irakurtzen jakin behar

Jesus Garcia irakaslearekin batera arkeologia ikasten ari diren ikasleak ari dira Los Cascajos lanean. Urantziako aztarnategiak eskaintzen duen informazioa interpretatzea zaila da, irakurtzen jakin behar den liburu bat bezelakoa. Goldeak urte askoz ibilitako lurra denez azalean ez da deus aurkitu baina indusketa egiten ari diren zatian, hainbat datu interesgarriak eskaintzen dituzten aztarnak aurkitu dira: janari ondarrak, eskuzko errotak edota silexko sukariak. Zonaldea zuloz josi eta arakatu ondoren, funtzio ezberdinak zituzten zatiak aurkitu dituzte herrixkan. «Herrixkan chorketa baten aztarnak eta janaria, likidoak edo alea gordetzeko erabiltzen zituzten poto puskek aurkitu ditugu. Despentsa modukoa bat zen eta zabortegi moduan ere erabiltzen zuten. Beraz, erabilera antz zituena», azpimarratu du Garcia arkeologoak. Haien zabortegian induskatuz «haien bizitza birrerakitzen salatzen ari gara» gaineratu du. «Orduko gizartearen antolakuntzak ihes egiten digu. Beraz, gure helburua haien sistema ekonomikoa eta bizimodua birrerakitzea bada ere, aspektu askok alde egiten digute. Gainera, askotan ez dakigu irakurtzen aurkitzen ditugun gauzetan. Informazio soziologikoa aurkitu dezakegu baina jakin egin behar da irakurtzen».

Hori guztia aintzat hartuz, Nafarroan egon ziren lehen abeltzain eta nekazariak seguruenik Urantzian lekutu ziren. «Ez du esan nahi lehenak izan zirenik, baina bai aurreneetakoak», dio Garciak. Baina tresna eta elikadura aztarnak ez ezik, hildakoenak ere aurkituz dituzte. Oraindik aztertu ez badiotuzte ere bitzitzen ziren toki berean lurperatzen zituztela baieztatzen du.



Neolitikoko gizakiak zura eta gorpuztaren zati batzuk aurkitu dituzte Urantziako aztarnategian.


• MIKEL SAIZ

horrek. «Datu hori oso interesgarria da. Garai horretan dolmenak ere erabiltzen direlako baina hemen ez dago trikuharririk edo oraingo behintzat ez dira ezagutzen. Beraz, badirudi Nafarroan garai horretan errotual ezberdinak zeudela», azpimarratu du arkeologoak.


Nolanahi ere, Los Cascajos gunean kokatzen den aztarnategia ez da garrantzitsua bakarrik ematen dituen datuengatik baizik eta hain handiak oso gutxi ezagutzen direlako. «Ez genuen uste hain herrixka handiak zeudenik. Aztarnak oso leku zabalean aurkitu dira. Nafarroan, Ebroko Bailaran eta Penintsulan garai honetan hain herri handirik ez da ezagutzen», azpimarratu du arkeologoak. Gainera, herrixka jarraitu egiten du. Orain dauden zatjarekin bukatu eta hurrengo batean hasiko dira, bi-lau hektarea inguruko herria baita industen ari direna. Gauzak uste bezala badoaz, hilarekin batera bukatuko dute indusketa eta orduan jasotakoa gehiago zehaztuko eta sailkatuko dute.

Beste indusketak
Nafarroako Museoaren ardurapean aur-

Koordinatzaileak egin behar dira indusketak. MIKEL SAIZ



INDUSKETAK NAFARROAN



tokia	garai	aurkitutako egilea	indusketa
Los Cascajos (Urantzia)	Neolitikoa	Jesus Sesma Jesus Garcia	Uztaila-abuztua
Andelos (Mendigorria)	Erromatar garaia	M ^a Angeles Merkiriz	Abuztua
Musen herria (Arellano)	Erromatar garaia	M ^a Angeles Merkiriz	abuztua
Moreako Trikuharria (Mañeru)	Neolitikoa	Jesus sesma	Iraila

A. PENALBA

Museoko arduradunek adierazi dutenez, aurtengoa urte berezia da eta indusketa gutxi egingen dituzte. Duela bost urte Nafarroako Museoak aztarnategien indusketei baino zer zegoen zehazten zuten sailkapena egiteari ekin zion. Jakin bazekiten aztarnategi asko zeudela baina ez zekiten zer garrantzi zuten. Zegoen ondarea salbatzeko asmoz hasi zen sailkapena eta egun horrek ematen du diru gehien. «Administrazioak erabaki du aztarnategietan diru gutxiago gastatzea eta gehiago arkeologia sailkapenetan. Herriz-herriz joanez inventarioa egiten da. Lurralde guztiko azala ibili eta bildu azalean duaden material guztiak da ondorengo lana. Hortik abiatutik ezagutzen da toki bakoitzean dagoena.

Politika da ezagutzea zer dugun eta gero erabaki zerk merezi duen industea», azpimarratu du Garciak. Diru gehien sailkapenak ematen du, 10 milioi pezetako aurrekontua du (400.000 libera) aurten.

→ Irene Arrizurieta

Aztarnategien gaitza: harrapaketak

Nafarroan dauden aztarnategi andana industea eta ikertzea ezinezkoa den moduan, guztiak babestea ere pentsatzen da. Beste herrialdeetan bezala aztarnategien gaitza eta arazo larriena azaleratzen diren aurkikuntzak babestea da. «Gure funtzioa ez da bakarrik aztarnategiak industea, eta horren inguruan liburu bat idatzi gero hamabostek irakurtzeko. Jendeak zer dagoen jakitea nahi genuke, guztien ondarea delako», azaldu du Urantziako aztarnategiko arduradunak. Arazoa guztien altxor izateko nola babestu da, aztarnategietan gertatzen diren harrapaketak maiz larriak direlako. «Arazoa handia da eta askotan ez dakigu nola asmatu. Arkeologia aztarnategiak babestea oso zaila da, ez baduzu bakoitzean foruzain bat jartzen, behintzat. Ugari daude eta nonahi eta Nafarroan ezkutuan

aztarnategietan materiala ematen aritzen den jende asko dago. Bada zertan ari den dakiena eta horren aurka neurriak hartzen saiatzen dira baina bada ere, ezaguera handirik gabe zertan ari diren konturatzen ez denik. «Guk paleta txikia da labana eta isiparekin lan egiten dugu. Motel-motel eta non kokatua dagoen erreparatuz gero behar bezalako azterketa egiteko. Aldiz harrapaketara doan ez du horrelakorik aintzat hartzen eta kalte handia egin dezake», nabaritu du Garciak. Ebaspenak ebaspen, ikertzen jarraitzeko beste modurik ez dagoela dio Urantziako aztarnategiko arduradunak: «Labana sartzen dugun aldiro beste berri bat aurkitzen dugunez, ikerketak lotzen dituen itaunketa guztiak hartuz jarraituko dugu».

Joxemiel Bidador

Emaztekiez mintzo den liburu berri bat

Arestian, *Ellas: las mujeres en la historia de Pamplona* izenburuko liburua argitara eman du Iruñeko Udalak, IPES elkarteko lan-talde batek egin; liburuan, nafar hiriko emakumearen historia nahiz hainbat irun-alaben berri dartorkigu naroki emanda.



EZ DA OHIKOA GURE BAZTER undats honetan gauza berriez mintzatzea, areago, berrikian argitara eman diren lanetaz buruz, baina udara garai-ko bero-sapa honek geure irakurle andana nahikoa murriztu digulakoan, haizu bekigu honako salbuespen plaketagarrri hau ateratzen, ildo aldaketa baten hasierako zantzutzat ez bada, bai ordea lanarteko oporraldi freskagarritzat bederik ere. Arras laburra da Iruñeko Udalaren Emakumearen Zinegotzigoak hiriko emakumeen gaineko liburu bat karrikan ezarri dueneko. Tamaina entziklopedikoa izan gabe, ez da aleki filuse, eta 300 orrialdeak aisa gainditzen ditu. Bestalde ere, prezioaren merkea ez dator batera inpresioaren kalitatearekin, eta seguruenik jota, aurtengoan Nafarroan kaleratu diren libururik hobereen artean kokatu beharra dago, betiere, datoren astean aurkeztuko den Monteagudoko paloteadua gaineko liburuaren ostean.

Ellas: las mujeres en la historia de Pamplona Silvia Fernández, Paco Roda, Ana Díez de Ure eta Sonia Pinillos laukoteaz osatutako IPES elkarteko lan taldeak ondua du, eta akats funtsagarriren bat aipatzekotan, euskaraz tajutu ez izana azpimarratu beharko litzateke. Edozein modutan ere, eta testuari gagozkiola, bi dira, oroz gain, liburuan nabarmen daitezkeen atalak. Alde batetik, eguneroko emakume anonimo horren historiariaren garatzeko saila, garai ezberdinei doazkien lau kapituloetan banaturik dagoena, hala nola, aitzineko Pompaelo zahar horren garaia, uste bezain iluna ez bide zen erta-

roa, modernitatearen aurretiko une atzerakoiak, eta azkenik, garaikideagoak ditugun sasoi itxaropentsuagoak. Beste aldetik, zerrendak dakartzigute egileek, bai zer esan berezirik izan duten emazte-kien katalogoak, bai Iruñeko kartografian emakumeek larratu dizkiguten aztarnen bildumak eta beronetatik elki ditezkeen ibilbideak.

Egileek egin sarrera, 'Oroimena berreskuratzeko', lana ulertzeko giltza zaiguke, «idaz-



ki honek emaztekiak gizonezkoengandik ez ditu aldendu nahi, edo bederen, horretara doa». Errezegi ohi da ahoa ele hantuez beteaz, berdintasunez mintzatzea hitzontzi, baina hau bezalako liburu ederrik agertzen zaigunerako, ozonengia behinik-behin ez da aditu ohi den azantza, agian, askoren gustagarri ez delako. Geure literaturari eskeintzen diogun txoko honetan, azpi-sail berezia hasi genuen emakumei eskeinia, 'Emaztekiez segida' izenean, non idazle zein bestelako euskal emakumeen berri eman genuen: Remigia Etxarren, Ignazia Pradere, Bizenta Mogel, Jule- ne Azpeitia, Julie-Adrienne Karrikaburu, Robustiana Mujika, Bustintza ahizpak, Madeleine Jauregiberri, Katalina Eleizegi, Katalina Erauso, Maria Maeztu, Juana Ines Asbaje, Nafarroako Margarita

eta Joana erreginak, Sorne Unzueta, Pantzeska Astibia, Aña Urruthi, Balendíe Albi- zu, Faustina Villaverde, Tomasa Lauzurika, Marguerite Brunet, Rufina Azkue, Joa- kina Garaialde, Rita Errezola, Josepa Martiarena, Florentina Loitegi, Jule Gabilondo, Per- petua Saragueta, Capitolina Bustintze, Frantsiska Sarasa- te... Segida horrek bukaera izan zuen, ez ordea txirikorda- tzeko gai zitezkeen gaineko aipua ahiturik zeudelako,

ezpada, bazterketa- ren gauzatze modua bazterketa bera zela oharturik, berdinta- sunezko ereduari azpi sail batek mesede mardulik egiten ez ziolako ziurtasuna baitugu, eta horretan gaude- la, azpi-sailik gabe ere, emaztekiek, gizonezkoek bezala, bere lekua badute, izan, gure honetan.

Azpi-saila baztertu izan dugun moduan, baina, euskal emakume idazleak mintzagai lezaketen ikerketen desiran bagaude, eta horregatik ere, plazara atera direnak aipatu beharrean gaude. Mari Kar- men Garmendiak *Hegats* aldizkarian jada aspaldian agertarazi zuen euskal emakume idazleen gaineko hain- bat berri, alabaina, badira eskuragarriagoak diren beste bi lan, gaurkoan ekarri dugun liburuarekin batera gelako apalategia gorki polit horni dezaketena. Bata antologia dugu, Itxaro Borda baxenafar zuberotartuak apailatua, *Emakumeak idazle*, Txertoa- ren eskutik 1984.ean ageri zena. Bestea esku-liburu eite- koa, Mikel Atxagak ondua da, *Euskal emakume idazleak (1908-1936)*, ihazkoan argita- ratua eta Eusko Jaurlaritzak sustatua.

Patziku Perurena

Harrimen guzien iturri

HALAXE DEITZEN DIO ene adiskide pentsalari batek eternidadeari. Greziarren mitolo- gian, zenbait jainkok, sekula guzi- rako saritzen du bere heroi hauta- tua; ukatu egiten du, ordea, he- roiak betiereko izate hori. Judutarren erlijioan, berriz, (gu- regan mandikaraino sartua den ho- netan), gogora zitezkeen zigorrak izu- garriena, behin betirako hiltzea zen. Horregatik ageri dira maiz gure bertsolarien ahotan, honako Altzo- ko Imazen hau bezalako pasarteak, betiereko bizi xuriaren gorantz:

...Eternidadea da arrigari da- na, luzean kaburik ez daukana izate bat beñere aituko ez dana guk ere ala degu animatxo bana.

Eriotza onak egin ditzagun Jaungoikoaren grazian geroz gloria seguru degu eternidade guzian...

Mundu onetan bat iltzen bada Jaungoikoaren grazian... zeruetara destinatzen da juziziko sententzian Jauna alabutzen an egoteko eternidade guzian...

Halabaina, oraino gure apezek, taigabeko iragarki komertzialek, agintzen diguten betirako paradisu horrek, betirako poz horrek, nola ez zuen inor hunkitzen, eta gainera, buruan argi muttur bat zuenaren- dako, sari baino areago zigor zirudien, *Infernu eternoa* asmatu behar izan zuen erlijio judukristauak, monoteismoa hedatzerakoan jende inozentea harrituko eta ikaratuko bazuen. Kontrapuntu judukristau berri honetakoak dira, esate bate- ko, Ezkioko Itxuak *eternidadearen gaietan* paratuko bertsoak:

Suak ukitzen badigu gure gorpu- tzean ezin sufritu degu istante batean, ea pekatariok, kontura gaitean, eternidadeko sua zer izango ote dan?

Infernuan daudenak beti daude erretzen goseak eta egarriak desespera- tutzen alde guztietatik atormentatu- tzen.

minutu bateko onik etzale gerta- tzen.

Oi betiereko oinaze ikaragarria! Oi infernua! Gure bertsolariak, gehienak semita kastakoak, ser- moillari judukristau peto petoak izan dira horretan, batez ere, ent- zulea kupida arazi, eta sos batzuk ateratzeko orduan.

Baina euskal pentsalari zuhu- rrak besterik dio: «Ene iduriko, eternitateak luze irauten duela aditzera ematen duten konpara- tze haren ideiatik urruntzen gai- tuzte. Eternitatea ez da luze eta ez da denboraz eginikako zerbait. Gi- zakia eternitatearen berria galdu duen animalia baita. Galera horri buruz ez dezakegu esan traba ala abantaila denik, baina bai, denbo- razko ez den zerbait gogoraezina zaigula, eta horregatik ustekabe- an agertzen zaigula. Adibidez, eterni- tatea, toki bat da». Halakotzat ageri zaigu benpe, Ezkioko Itsuaren ber- sootan ere:

Jainkoak aginduko balio txori bati urtean ur tanto bat kentzeko itxa- soti orrela agortzeko potzu aundi ori elitzake bearko txit denbora gutxi.

Konpara dezagun etxe bat bete ga- ri urtean granotxo bat kendu dadila orti ala ere aituko da gari pillar ori baña eternidadeak traungo du be- ti.

Gertatze horrek, jarraipena, denboraren jarioa, adituztat ema- ten digu. Badakigu hori gure ezau- garri dela, eta horregatik hunkitzen gaitu Faustoren oihuak: «O ixtant, geldi hemen, horren eder haizen!». Horrek esan nahi du, eternitatea, beti gure mende dugula, nahiz tira eta luzatzen ahalegindu.

Horra nahasmen guzien iturria: eternitatea zerbait haundi delako irudia. Eternitatea ez da haundi, ez ttipi, esan liteke egun bateko edo instant bateko gertaldia dela, irudi- penitsu batek hazia eta hiperbole bihurtua. Birila eta txoria lekuko. Eta nago, Orixeren jainkozko «ari» aditzari pittin bat erreparatzea aski ote luken euskaldunak, batere jainkozkorik gabe eternitatea zer den errex ulertzeko.

Ziria

• Motxorrosolo •

Mestizaia artxiboan


ABANGOARDIEN AMAIERA IRAGARRI DENEZ GEROZTIK MESTIZAIA DA NAGU- si. Eraikinaren historiak horretarako bide eman du. Erret Jauregia, Kapitaintza, Napoleondarren kabia, eta mende honetan hainbat egitasmoren erdigunea, unibertitate, parlamentu eta azke- nik artxibategi, bizkitartean zaldiak eragindako amesgaiztoen biltoki izan da. Kubismoak mugatuko du Nafarroako historia. Ixtorioak kanpo dira.

Ramon Bikuña

Ur-bilatzailea eta igarlea

«Gehienak izan daitezke ur-biltzaile»

Ramon Bikuña ur-bilatzailea eta igarlea da. Lanbidez Iruñerriko Mankomunitateko lan proiektuetako arduraduna bada ere, norbaitek deitzen duenean edo denborapasa dabilenean lur azpian ura aurkitzen dihardu. Maiz hain preziatua den likidoa ez ezik, besterik ere aurkitu izan du: gasa, tutuak edo galdutako lagunen bat, kasu.



● MIKEL SAIZ

sosiaia

UMIL ETA APAL HURBILDU ZEN hitzordura Ramon. Trago baten arrimoan, kostata eta urduri mintzatu zen gustora eta prestu egiten duen ur-aurkitzaile lanaren gora-beherez.

■ Nola hasi ziren ur-bilaketak egiten?

Ustekabean hasi nintzen, lanak beharturik nolabait. Iruñerriko Mankomunitatean lanean hasi nintzenean maiz inork nondik igarotzen ziren ez zekien tutuak eta ur-putzuak aurkitzen ibili behar izaten nuen. Zaragozan pendulu bat erosi eta afizioa sartu zitzaidan. Erradiestesia bi ikastaro egin nituen Juan Ose-sekin eta ordutik ura eta beste gauza konplikatuek bilatzen aritzen naiz: norbait non dagoen aurkitu, adibidez. Jendeak far egiten du gure kontura baina zerbait aurkitzeko gai zarela frogatzen diozunean ixildu egiten da.

■ Zertan datza ur-bilatzaile baten lana?

Ur-bilatzaile baten lana ura aurkitzea da eta hori ez da zaila. Latzagoa da erradiestesia, galduta dagoen norbait aurkitzea edo bati urte batzu barru gertatu ko zaiona asmatzea. Ur-bilatzailearen lana gehiengoak egin dezakeen zerbait da.

■ Nola antzematen da ura toki jakin batean?

Orrialde batean lur zati bateko plano egiten didazu eta nik antzeman dezaket ura badagoen, zenbat, nondik datorren eta zein

sakonera duen putzuak. Behin lur zatira joan eta gero, hori guztia zehazteko aukerak dituzu. Lehenik eta behin, kontzentratu egin behar duzu. Ondoren, altzairu herdoilgaitzeko bi makila eta pendulua nahikoa dira guzti hori jakiteko. Bi makilak esku banetan hartu eta ura dagoela antzemanen duzu makilak iturburuaren korronteren norabidea adierazten dizulako. Iturriaren gune jakina paraleloki doazen bi altzairuzko piezak alde baneta egiten duenean jakinen duzu. Ondoren, penduluarekin

haren sakonera eta kantitatea aurkitu dezakezu. Lan nahiko azkarra da.

■ **Fiatzekoa da zuk egiten duzun azterketa eta neurketa?**
Egin ditudan bilaketek %80an aurkitu dut ura eta ur kantitatea ere nahiko erraz jakiten dut. Sakonera zehaztea zailagoa da, horretan ez dut hainbeste asmatzen eta aisago, %40an, egin dezaket akatsen bat.

■ **Zure teknika zientifikoa da edo intuizioan oinarritutakoa?**
Teknika hori Erromatar Garaian ere erabiltzen zuten. Ez da intuizioan soilik oinarritutakoa ere. Ikusten ez ditugun arren, urak, argi kableek edota tutueriek uhin magnetikoak sortzen dituzte, eta nik uhin horiek igarri besterik ez dut egiten.

■ **Iruñeko Udalarekin lan egiteko aukera izan duzu. Nori otu zitzaion?**

haren sakonera eta kantitatea aurkitu dezakezu. Lan nahiko azkarra da.

■ Fiatzekoa da zuk egiten duzun azterketa eta neurketa?

Egin ditudan bilaketek %80an aurkitu dut ura eta ur kantitatea ere nahiko erraz jakiten dut. Sakonera zehaztea zailagoa da, horretan ez dut hainbeste asmatzen eta aisago, %40an, egin dezaket akatsen bat.

■ Zure teknika zientifikoa da edo intuizioan oinarritutakoa?

Teknika hori Erromatar Garaian ere erabiltzen zuten. Ez da intuizioan soilik oinarritutakoa ere. Ikusten ez ditugun arren, urak, argi kableek edota tutueriek uhin magnetikoak sortzen dituzte, eta nik uhin horiek igarri besterik ez dut egiten.

■ Iruñeko Udalarekin lan egiteko aukera izan duzu. Nori otu zitzaion?

Beraiek deitu zidaten. Javier Igal UPNko zinegotziak ura aurkitzeko hoberena nintzela zioen eta onartu egin nuen. Mercairuñan, (Eroski hipermerkatuaren ondoko lursaila) ura zegoen edo ez jakin nahi zuten. Ez nuen uste honek hainbeste zalaparta sortuko zuenik ni baino hobeto asko daukelako. Joan den ostegunean jaitsi nintzen lursaila aztertzeraz eta ur badagoela zihurtatu nien. Dena den, ez dakit noiz hasiko diren ateratzen edo zertarako nahi duten. Gainera, usté baino ur gehiago dute han.

■ Zein beste lan egin izan dituzu?

Normalean partikularrentzako egiten dut lan. Deitu egiten naute, begiratu lursaila eta bilatzen duzu aurkitu beharrekoa. Gehienetan ura izaten da aurkitu beharrekoa, baina noizbehinka pertsonaren bat edo gasa, tutuak aurkitzeko agindua ere eman didate.

Nahi dutenean deitzen didate. Niretzako denborapasa eta jostaketa da eta eskatzen didatenean gustora egiten dut.

■ Zu baino hobeto badaude la aipatu duzu. Nafarroan jende asko ibiltzen da horrelako lanetan?

Jende asko dago eta horrelako lanak gustora egiten badituzte ere ez zait gustatu sortu den zalapar-

Ramon Bikuñak 47 urte ditu eta txikitatik Iruñean bizi izan bada ere, berez Añorbe herrikoa da. 28 urte darama Iruñerriko Mankomunitatean lanean. Ezkondua dago, seme-alaba biren aita da. Familian ez du ura bilatzen aritzen den beste inor, baina bere bidea jarraituz, hamasei urteko semea ikasten ari omen da.

Hiriburuan bizi bada ere, landa du gustuko eta ahal duen guztietan Iruñea utzi eta Mendigorrian duen lursailera joaten da. Han, letxuak eta tomateak landu bidenabar lasai eta gustura egoten da. «Ez dut besterik behar pozik egoteko, ur-bilaketak egiten ez ditudanean baratzean aritzen naiz eta nahikoa dut», baieztatu du.

Askok «txoratuta» dagoela esaten badiote ere, etorkizunean erradiestesiaren teknikan sakontzen jarraituko du. Ura ez ezik, galdutako jendea aurkitzen aritu da. Dena dela, gogoratu nahi ez dituen esperientzia txarrak izan eta gero, horrelako lanik ez duela berriro hartuko dio.

ta. Gaiaz hitz egiten hasten zara eta jende askok eroa zaudela esaten du. Gustoko dudalako egiten dut eta ez dut nire kontura inork iseka egitea. Nohizbehinka akatsak egiten dituzu eta onartu ere, baina oso gaizki pasatu izan dut.

■ Kobratzen duzu zure lanagatik?

Nolakoa den zerbitzua. Lanbidea ez dudanez batzuetan bakarrik jasotzen dut sosa eta beste batzuetan borondatez ematen didatena. Kobratu dudanean gehiena Mercairuñak ordaindutako 10.000 pezetak izan dira.

■ Nafarroan lur-azpiko putzu asko daude?

Putzuak baino gehiago ur-korronteak daude ugari. Azalean agerian dagoen ura herrialdean dagoen laurdena besterik ez da. Lursail gehienek azpian ura dago, batzuetan oso sakon besteetan azaletik gertuago. Askotan handik ura ateratzea ez da errentagarria izaten baina egon badago, kasuen %90ean bai, behintzat. Gainera, ur garbiak dira guztiak.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Zorionak

Orain dela hamar urteko larrazkeneko egun bat zen, arratsaldeko zazpiak aldera oker ez banaiz. Gogoan dut egun hartan irratia piztu eta Euskalerria Irratiaren lehendabiziko programa hura hasieratik bukaeraraino aditu nuela. Ez bakarrik proiektuak niregan, euskalzale askorengan bezala, ilusioa piztu zuelako, baita ere garai hartan egun batetik bertzerera egin zidaten eskaintza bat zela medio irratia euskaraz nola egin ikasi behar nuelako. Eta FM 91,4an ari ziren horiek ez ziren irakasle txarrak. Mikel Bujandak arrazoia zuen: euskaraz ez du etorkizunik erdarazko komunikabideetan hasieran guti egiten delako eta gero deus ez. Nik, garai hartan erdal irratia batean euskarazko programazioaren arduradun, oker zebilela pentsatu nahi nuen. Handik bost urtera, ordea, ni ari nintzen irratian ere dena erdaraz egitea erabaki zutelarik okerreko iritzia nirea zela frogatu eta bertze lan bat bilatu behar izan nuen.

Hamar urteren buruan, Euskalerria Irratia entzuten segitzen dut. Ez irratia horretan euskaraz aritzen direlako baizik eta egunero eskaintzen duen programazio zabalaren barruan nire gustoko albistegi, elkarrizketa, mahainguruak etab. entzuteko parada ematen didalako. Irrati ona delako.

Horrexegatik, lizentzien bana-ketari buruz hainbertze iritzi entzun-irakurri ondoren, nik irratia hamargarren urtebetetzean honakoa erran nahi diet Irrintzi Dorretik Iruñerriko euskaldunoi informazioa euskaraz helarazten digutenei: zorionak 10 urteotan egin duzuen lanagatik. Eta segi aitzina.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- ▀ Zangoza: Karmeneko auditorioan Azizah azerbaiyandarra ariko da gaur eta bihar Toto la Momposina kolonbiarra. Bi kontzertuak 22:00etan izanen dira.
- ▀ Zugarramurdi: Xose Manuel Budiño gaitariak diska berria aurkeztuko du, gaur 21:30tan, lezeetan.
- ▀ Elizondo: Bihar frontoian Los Petersellers taldeak joko du. Datorren ostegunean, berriz, Carlos Nuñez gaitari galiziarra arituko da toki berean. Bi kontzertuok 21:30tan izanen dira.
- ▀ Tafalla: Nafarroako plazan, Ortzadar Euskal Folklore Taldearen musika eta dantza saioa izanen da etzi, 22.00etan.

ZINEMA

- ▀ Barañain: 'Siete años en el Tibet' pelikula pantailratuko da gaur, 22:00etan, laku ondoan.
- ▀ Urzainki: 'Mentiroso Compulsivo' pelikula eskainiko da gaur, 22:00etan, frontoian. Pelikula hau ordu berean eskainiko da bihar Olkozeko plazan, eta igandean Artabakoan.
- ▀ Altsasu: 'Airbag' pelikula eskainiko da datorren ostegunean, 22:30tan, Foruen Enparantzan.
- ▀ Atarrabia: 'Mowli eta Baloo' pelikula izango da ikusgai datorren ostegunean 22.00etan, Bakearen Parkean.

ANTZERKIA

- ▀ Lukin: 'El secreto de Lena' antzezlan eskainiko du Sambhu antzerki taldeak gaur 21:30tan plazan.
- ▀ Uterga: 'MisMitos' lana aurkeztuko du Trokolo antzerki

taldeak, bihar 21.30tan herriko frontoian.

- ▀ Auza: 'Lenaren Sekretua' antzezlan eskainiko du Sambhu taldeak, igandean 21:30tan herriko plazan.
- ▀ Atarrabia: 'Caninando' antzezlan eskainiko du T'Ombigo taldeak euskarazko datorren asteartean, 18:30tan, Martiket Udal igerilekuan.
- ▀ Tafalla: Kale antzerkia Boni&Caroli malabaristen eskutik. Sidecar lana aurkeztuko dute datorren asteartean Nafarroa plazan, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- ▀ Iruñea: 'El Circuito de Lasarte' izenburupean, Nafarroa eta EUEko RAC autozale elkartearen sorrera gogoratzen duten argazkien erakustaldia izango da abuztu osoan Planetarioko erakusgelan.

BESTELAKOAK

- ▀ Doneztebe: Bear Zana frontoian, Bertizko Lehenengo Aizkora Txapelketa izango da jokoan etzi, 12:00etan.

▀ Leitza: Bertso saioa izango da datorren asteartean, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Jesus Mari Irazuren eskutik. Herriko plazan ariko dira 12:30tan.

▀ Iruñea: Urtero bezala, IPES elkarteak umeentzako euskarazko tailerrak antolatu ditu. Hila amaitu arte San Frantziskoko eskoletan egingo dira ikastaroak, goizeko 10:00etatik 12:30ak arte. Matrikula hamabost aldi baterako edo hil osorako egin daiteke.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Diamanteak betiko



"Gazte nintzelarik, belarretan nenbilen artean, herriko neskatxa aberatsak hippyak ziren, eta lepoan maskorrak eta kutinak eramaten zituzten. Orain bederen badugu gauza bera lepoan".